## Azpaŕen'en, Udaletxean, 1921 'ko Epaiĺa 'ren 8 ' an.

Batzaŕ au bere, agiria izan zan.

Maipuruan, Azkue, Olabide, Landeŕetxe, Altube, Lhande euskaltzaiñak, Lakonbe, autatua, Belaustegigoitia, St. Pierre, Elizalde, Leon eta Daranatz uŕgazleak.

Batzaldi onen gaya Lakonbe autatuaren euskaltzain-saŕera izan zan eta onelako gertaldietan oi danez saŕ-itzaldia beragandik entzun genduan. Erantzupen-itzaldia Azkue euskaltzainburuak izan eban eta bere amayeran lagungaya euskaltzain autoŕturik, ezautaiĺua esaŕi eta eskua estutu eutsan, anaitasunezko erakuspen au beste euskaltzain lagunak bere agerturik.

Batzaldi onen amayeran euskaltzain eta entzule guztiak iĺaŕietara joan zirean Brousain (G. B.) euskaltzain zanaren obian bere arimearen alde otoitz egitera.

---

## Donostia'n Aldundi-Jauregian, 1921 'gko Joŕaila'ren 28'an.

Batzaŕean bildu ziran euskaltzañak abetxek izan ziran: Azkue, Maipuru, Kanpion, Eguskitza, Altube, Olabide, Intza, Landeŕetxe, Lhande, Lakonbe, ta Intzagarai; uŕgazlerik Manterola Gabriel, Eibaŕkoa.

1. Euskaltzainburuak Euskeraren batasunezko txostenak irakuŕi ditu, ta arazo gaŕantzi onen lanai auŕerapena eman zaye.